

TAFALLAKO UHOLDEETAN KALTEA JASAN DITUZTENEI LAGUNTZEKO EROSKI-K ANTOLATU DUEN KANPAINAK 21.000 € BILDU DITU

- **Dirua Nafarroako Gobernuaren bidez bideratuko da, eta osorik joango da uholdeetan kalteturik suertatu diren familientzat**
- **EROSKI eskerrak ematen ditu bere bezeroek erakutsi duten elkartasunagatik, ahalegin handia egin baitute beren ekarpenekin**

Tafalla (Nafarroa), 2019ko abuztuaren 9a.- Tafallako uholdeetan kalteak jasan dituztenei laguntzeko [EROSKI](#)k antolatutako kanpainan, 21.000 euro bildu dituzten. Bezeroek eman dute zati bat, eta EROSKI-k ekarpen gehigarri bat egin du. Uztailaren 8an, erauntsiak jo zuen Tafalla, eta errekek gainezka egin zuten. Etxeak, errepideak eta lurak urpean gelditu ziren, eta lagun bat hil egin zen. Garbiketaz arduratzen den taldea herria eta inguruak garbitzen aritu da, uneoro herritarren elkartasun izugarriarekin.

EROSKIren kanpaina martxan egon da uztailaren 16tik abuztuaren 3ra, Nafarroan dituen supermerkatu eta hipermerkatu guztietan. EROSKIren dendetan, kartelak egon dira jarrita kontsumitzaileei elkartasuna eskatzeko ordainlekuetatik igarotzeko orduan. Horrekin uholdeak eragin dituen kalteak arintzea da asmoa.

Bildutako dirua Nafarroako Gobernuak bideratuko du, eta osorik joango da uholde ikaragarri horretan kaltetun suertatu direnentzat.

"Gure bezeroen elkartasuna harrotzeko modukoa da, eta atsegin handia sentitzen dugu ikusita, beste behin, nolako konpromisoa duten gure bezeroek gehien behar duen jendearekin. Hori dela eta, EROSKI-k eskerrak eman nahi ditu, lehenik, tafallarrentzat egindako elkartasun deian gure kontsumitzaileek emandako erantzunagatik, eta eskerrak, bigarrenik, bestelako elkartasun ekimenetan ere beti inplikatzeko direlako", esan du EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun saileko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI-k sortu zenetik antolatu ditu askotariko gizarte ekimenak; batez ere, bizimodu osasungarria sustatzeko, kontsumitzailea hezteko, ingurumena babesteko eta elkartasuna erakusteko.

EROSKI

Dirección de Comunicación Corporativa
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – OFICINA DE PRENSA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Sala de prensa online](#)